

Xedapen Orokorrak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3163

156/2010 DEKRETUA, ekainaren 8koa; honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Nazioartekotze Kontseilua sortzen da.

Euskal enpresen lehiakortasuna hobetzeko, ezinbestekoa da gure ekonomiak nazioartean duen zabalakundea areagotzea; alde horretatik, nazioartean jarduerak egiteko ekimenei eta horiek sendotzeko lanari irmo lagundu behar zaie, ez bakarrik nazioarteko merkatuetara ateratzeko, baita nazioarteko lankidetzaren beharrezkoa den eremuetan kapitala eta jakintza erakartzeko ere.

Prozesu hori aurrera ateratzeko, nazioartekotze-jarduerak sustatzen diren instituzio eta erakundeek ahalegina egin behar dute euren esku dituzten baliabideak ahal denik eta errentagarrien bihurtzeko; horretarako, ezinbestekoa da jarduerak koordinatu eta, beharrezkoa den kasuetan, lankidetzan aritzea. Jarduera-planen berri elkarri jakinarazteak berez dakar koordinazioa eta, gainera, erakundeen arteko beharrezko lankidetzaren ere ekarriko du, hala behar den jardueretan.

Irailaren 26ko 192/2000 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Nazioartekotze Batzordea sortu zen. Dekretu honen bidez, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoko Nazioartekotze Kontseilua sortzen da, aurreko batzordea ordeztuko duena. Kontseilu hori sortuta bete nahi den helburua da, Euskal Autonomia Erkidegoan, nazioartekotzearen arloko alderdi guztietan aritzen diren erakundeen parte hartzea, lankidetzaren eta koordinazioaren sustatzea.

Hori dela eta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuaren eskariz, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko ekainaren 8ko bileran eztabaiatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Dekretu honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko Nazioartekotze Kontseilua sortzea da. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak nazioartera zabaltzeko arloan aholku-erakunde gisa jardungo du Kontseiluak.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

3163

DECRETO 156/2010, de 8 de junio, por el que se crea el Consejo de Internacionalización del País Vasco.

La mejora de la competitividad de las empresas vascas pasa por un aumento de los niveles de internacionalización de nuestra economía y se hace necesario un apoyo decidido a la iniciación y consolidación de la actividad internacional, entendida esta, tanto como la salida a los mercados internacionales en sus diferentes formas, como la captación de capital y conocimiento en aquellos ámbitos en los que la colaboración internacional resulte necesaria.

Para apoyar este proceso se hace imprescindible que las diferentes instituciones y organismos que trabajan en el ámbito del fomento de la internacionalización realicen un esfuerzo por rentabilizar al máximo los recursos con los que cuentan y para ello se hace imprescindible que las actuaciones se coordinen y en las ocasiones que así lo requieran se colabore. La puesta en común de los diferentes planes de actuación, además de conllevar una lógica coordinación, podrán conllevar la necesaria colaboración interinstitucional cuando el carácter de las actuaciones así lo requiera.

Mediante el Decreto 192/2000, de 26 de septiembre, se creaba la Comisión de Internacionalización del País Vasco. Este nuevo Decreto tiene por objeto la creación del Consejo de Internacionalización del País Vasco que sustituirá a la anterior Comisión. Con la creación de este Consejo se pretende facilitar la participación, colaboración y coordinación de los diversos organismos que a nivel de Euskadi actúan en el ámbito de la internacionalización en sus diferentes vertientes.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su reunión celebrada el 8 de junio de 2010,

DISPONGO:

Artículo 1.– Es objeto del presente Decreto la creación del Consejo de Internacionalización del País Vasco, como órgano asesor en materia de Internacionalización de las empresas de la Comunidad Autónoma Vasca.

2. artikulua.– Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailera atxikita egongo da Nazioarteko Kontseilua.

3. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nazioartekotze Kontseiluak eginkizun hauek izango ditu:

– Nazioartekotzearen sustapenean jarduten duten administrazioen eta erakundeen topaketarako foro izatea.

– Ordezkatutako erakundeek nazioartekotzearen sustapenean martxan jartzen dituzten jarduerak koordinatzea.

– Ordezkatutako erakundeen artean arlo horretan egin daitezkeen lankidetzajarraibideak ezartzea.

Erakunde parte-hartzaileek aurkeztzen dituzten jarduera-ekimenak proposatu eta eztabaidatzea.

– Kontseiluan ordezkatutako erakundeek nazioartekotzearen sustapenean egiten dituzten ekintzak ebaluatzea.

– Nazioartekotzearen sustapenari dagokionez, ekonomia sustatzeko planak lantzeko eta martxan jartzeko aholkularitza ematea.

– Euskal enpresak kanpoan lehiakorrago izatea ahalbidetzen duen beste edozein eginkizun.

4. artikulua.– Osoko Bilkura baten eta Batzorde Betearazle baten bidez egituratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Nazioartekotze Kontseilua; horrez gain, lantaldeak ere eratu ahal izango dira.

5. artikulua.– Osoko Bilkurak eginkizun hauek beteko ditu:

– Kontseiluaren eta Batzorde Betearazlearen jarduera-araudia onartzea.

– Batzorde Betearazleak aurkeztutako proiektuak, proposamenak eta azterlanak analizatu eta, hala badagokio, onartzea.

6. artikulua.– Bere lehendakariak deituta, gutxienez urtean behin bilduko da Osoko Bilkura, bai eta hark egoki irizten dion bakoitzean ere, edo gutxienez kideen bi herenek hala eskatuta.

7. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nazioartekotze Kontseiluko kide guztiak izango dira Osoko Bilkurako kide; hona hemen:

– Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburua; Osoko Bilkurako lehendakaria izango da.

– Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Teknologia sailburuordea; Osoko Bilkurako lehendakariordea izango da.

– Eusko Jaurlaritzako Nazioartekotzeko zuzendaria.

– SPRIko zuzendari nagusia.

Artículo 2.– El Consejo de Internacionalización del País Vasco quedará adscrito al Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

Artículo 3.– Las funciones del Consejo de Internacionalización del País Vasco son las siguientes:

– Servir de foro de encuentro de las distintas Administraciones y Organismos que actúan en el ámbito de la promoción de la internacionalización.

– Coordinar las actuaciones que los diferentes organismos representados pongan en marcha en el campo de la promoción de la internacionalización.

– Establecer las pautas de colaboración que en esta materia puedan realizarse entre las instituciones representadas.

Proponer y debatir las iniciativas de actuación que los organismos participantes presenten.

– Evaluar las acciones que en el área de la promoción de internacionalización realicen las entidades representadas en el Consejo.

– Asesorar en la elaboración y puesta en marcha de los diferentes Planes de Promoción Económica en lo relativo a la promoción de la internacionalización.

– Cualesquiera otras funciones que permitan mejorar la competitividad exterior de las empresas vascas.

Artículo 4.– El Consejo de Internacionalización del País Vasco se organizará en base a un Pleno y una Comisión Ejecutiva, pudiendo, además, constituirse grupos de trabajo.

Artículo 5.– Serán funciones del Pleno:

– Aprobar el reglamento de funcionamiento del Consejo y de la Comisión Ejecutiva.

– Estudiar y, en su caso, aprobar los proyectos, propuestas y estudios presentados por la Comisión Ejecutiva.

Artículo 6.– El Pleno del Consejo se reunirá previa convocatoria de su Presidencia al menos una vez al año y siempre que aquel lo estime conveniente o lo soliciten, al menos, dos tercios de sus miembros.

Artículo 7.– El Pleno del Consejo de Internacionalización del País Vasco estará integrado por la totalidad de los miembros del Consejo:

– El Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en calidad de Presidente.

– El Viceconsejero de Innovación y Tecnología del Gobierno Vasco, en calidad de Vicepresidente.

– La Directora de Internacionalización del Gobierno Vasco.

– El Director General de la SPRI.

- SPRIko Nazioartekotze zuzendaria.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plan-gintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko ordezkari bat, zuzendari-mailakoa; Osoko Bilkurako bokal gisa jardungo du.
- Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko ordezkari bat, zuzendari-mailakoa.
- Lurralde Historikoetako foru-aldundi bakoitzeko ordezkari bat; erakunde bakoitzeko gobernu-organoak izendatuko ditu, eta diputatu-maila izango dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza Gan-bara bakoitzeko ordezkari bat; Osoko Bilkurako bo-kal gisa jardungo dute.

– ICEX Instituto Español de Comercio Exterior delakoaren ordezkari bat; Osoko Bilkurako bokal gisa jardungo du.

– Euskal Autonomia Erkidegoan garrantzi han-diena duten elkarte sektorial edo kluster bakoitzeko ordezkari bat; bost izango dira gehienez, eta Osoko Bilkurako bokal gisa jardungo dute.

– Confebask Confederación de Empresarios Vascos elkarteko hiru ordezkari; Osoko Bilkurako bokal gisa jardungo dute.

– Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari-tza za-balena duten sindikatu-etako ordezkariak; lau izango dira, gehienez, eta ordezkari-tzaren arabera izendatuko dira. Osoko Bilkurako bokal gisa jardungo dute.

– Bilbao Exhibition Centre-ko ordezkari bat, bo-kal gisa jardungo duena.

– Idazkari bat, hitza bai, baina botorik izango ez duena. Osoko Bilkurako Lehendakari-tzak izendatuko du Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Mer-kataritza eta Turismo Sailari atxikitako teknikarien artean.

8. artikulua.– Batzordea Betearazleak egiteko hau-ek izango ditu:

a) Proposamenak eta azterlanak egitea nazioarteko-tzearen arloan.

b) Beharrezko diren lantaldeak eratzea eta horien osaera eta jarduera-sistema zehaztea.

9. artikulua.– Batzorde Betearazlea seihileko ba-koitzean behin bilduko da gutxienez, eta bileretako bat Osoko Bilkuraren bilerarekin bat etorriko da.

10. artikulua.– 1.– Nazioartekotze Kontseiluko Batzorde Betearazleak kide hauek izango ditu:

– Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Teknologia-ko sailburuordea.

– Eusko Jaurlaritzako Nazioartekotzeko zuzenda-ria.

– El Director de Internacionalización de SPRI.

– Una persona en representación del Departa-mento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco con rango de Director o Directora que actuará como vocal.

– Una persona en representación de la Secretaría General de Acción Exterior del Gobierno Vasco con rango de Director o Directora.

– Una persona en representación de cada una de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos, designados por sus respectivos órganos de gobierno con rango de Diputado o Diputada.

Una persona en representación de cada una de las Cámaras de Comercio del País Vasco que actuará co-mo vocal.

– Una persona en representación del Instituto Es-pañol de Comercio Exterior, ICEX que actuará como vocal.

– Una persona en representación de cada una de las Asociaciones Sectoriales o Clusters con mayor pe-so económico en el País Vasco, con un máximo de cinco que actuará como vocal.

– Tres personas en representación de la Confedera-ción de Empresarios Vascos (Confebask) que actuarán como vocales.

– Una persona en representación de cada uno de los sindicatos más representativos del País Vasco, con máximo de cuatro, determinados en función de su representatividad que actuará como vocal.

– Una persona en representación del Bilbao Exhi-bition Centre que actuará como vocal.

– Un Secretario o Secretaria, que actuará con voz, pero sin voto, que será designado por la Presidencia entre los Técnicos y las Técnicas adscritos al Departa-mento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

Artículo 8.– Serán funciones de la Comisión Eje-cutiva:

a) Realizar propuestas y estudios en el ámbito de la internacionalización.

b) Constituir los grupos de trabajo que sean neces-arios y determinar su composición y sistema de fun-cionamiento.

Artículo 9.– La Comisión Ejecutiva se reunirá al menos una vez al semestre, coincidiendo una de ellas con el pleno del Consejo.

Artículo 10.– 1.– La Comisión Ejecutiva del Con-sejo de Internacionalización estará compuesta por los siguientes miembros:

– El Viceconsejero de Innovación y Tecnología del Gobierno Vasco.

– La Directora de Internacionalización del Gobier-no Vasco.

– SPRIko Nazioartekotze zuzendaria.

– Lurralde Historikoetako foru-aldundi bakoitzeko ordezkari bat; erakunde bakoitzeko gobernu-organoak izendatuko ditu, eta diputatu-maila izango dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza Ganbara bakoitzeko ordezkari bat; Osoko Bilkurako kide gisa jardungo du.

– Euskal Autonomia Erkidegoan garrantzi handiena duten elkarte sektorial edo kluster bakoitzeko ordezkari bat; bost izango dira gehienez, eta Osoko Bilkurako kide gisa jardungo dute.

– Confebaskeko ordezkari bat.

– Bilbao Exhibition Centre-ko ordezkari bat.

– Idazkari bat, hitza bai, baina botorik izango ez duena. Osoko Bilkurako Lehendakariak izendatuko du Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikitako teknikarien artean.

2.– Horretaz gain, tamaina eta nazioartekotze-maila desberdineko enpresetako hiru ordezkari gonbidatu ahal izango dira gehienez, Batzorde Betearazleko bileretara; hitza bai, baina botorik ez dute izango, eta Batzordeko bokalak izango ez diren arren, euren ekarpen eta esperientziak aintzat hartuko dira.

11. artikulua.– Osoko Bilkurako nahiz Batzorde Betearazleko bokal berrien izendapena Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuaren agindu bidez egingo da, betiere Kontseiluan ordezkariak duten erakundeek izendatu ondoren. Kideak izendatzean, emakumezko- eta gizonezko-kopurua orekatua izatea sustatuko da, betiere gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia dutela bermaturik, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 23. artikuluan ezarritakoari jarraituz eta lege horren 3.7 artikuluan finkatutako ordezkariak-parametroen arabera.

12. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Nazioartekotze Kontseiluko kideek dagozkien dietak edo kalte-ordainak jaso ahal izango dituzte zerbitzuak betetzeagatik, indarrean dagoen araudiaren arabera, betiere.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Berriaz indargabetu egiten da irailaren 26ko 192/2000 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Nazioartekotze Batzordea sortu zuena.

– El Director de Internacionalización de SPRI.

– Una persona en representación de cada una de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos, designados por sus respectivos órganos de gobierno con rango de Diputado o Diputada.

Una persona en representación de cada una de las Cámaras de Comercio del País Vasco que actuará como vocal.

– Una persona en representación de cada una de las Asociaciones Sectoriales o Clusters con mayor peso económico en el País Vasco, con un máximo de cinco que actuará como vocal.

– Una persona en representación de Confebask.

– Una persona en representación de Bilbao Exhibition Centre.

– Un Secretario o Secretaria, que actuará con voz, pero sin voto, que será designado por la Presidencia entre los Técnicos y las Técnicas adscritos al Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

2.– Adicionalmente se podrá invitar a participar en las sesiones, de la Comisión Ejecutiva del Consejo, con voz pero sin voto y sin que les sea reconocida la calidad de vocales, a como máximo tres representantes de empresas de diferentes tamaños y niveles de internacionalización, de forma que se pueda contar con sus aportaciones y experiencias.

Artículo 11.– El nombramiento de los nuevos vocales, tanto del Pleno, como de la Comisión Ejecutiva, se efectuará mediante Orden del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco previa designación de las entidades representadas en el Consejo. En la designación de las personas a ser nombradas, se promoverá una presencia equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada, de acuerdo con lo previsto en el artículo 23 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y según los parámetros de representación fijados en el artículo 3.7 de la referida Ley.

Artículo 12.– Los miembros del Consejo de Internacionalización del País Vasco podrán percibir las dietas o indemnizaciones que por razón de servicio les correspondan de acuerdo con la normativa vigente.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado expresamente el Decreto 192/2000, de 26 de septiembre, por el que se crea la Comisión de Internacionalización del País Vasco.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera sartuko da indarrean.

Gernika-Lumon, 2010eko ekainaren 8an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza
eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Gernika-Lumo, a 8 de junio de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Industria, Innovación,
Comercio y Turismo,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.